



## EITBREN KONTROL BATZORDEAK 2018KO AZAROAREN 19AN EGINDAKO BILKURAREN HITZETZ HITZETZKO TRANSKRIPZIOA

*Goizeko bederatziak eta hogeita hamabostean hasi da bilkura.*

**BATZORDEBURUAK** (Arrizabalaga Arruza): Bai. Egun on, denoi. Hasiera emango diogu batzordeari? Bai?

Bada, egun on, denoi. Eta EITBren Kontrol Batzordeari hasiera emango diogu. Lehenik eta behin, beno, ba barkamenak eskatzea batzordearen izenean edo mahaia edo presidente den izenean, ostiralean gertatu zen nahasmenduaren inguruan. Honen inguruan baita ere, gure gonbidatuek zerbait esango dute bere interbentzioaren inguruan, bai? Gauzak argi geratu daitezten. Eta ez dakit. Beste galderarik edo zerbait ez badago, beste barik, gonbidatuei harrera egingo diogu eta agerraldiarekin hasiko gara. Bai? Oso ondo.

Eskerrik asko.

*(Geldiunea)*

Bai. Bada, hemen ditugu gure artean Maite Iturbe Mendialdua, EITBko zuzendari nagusia, eta Andoni Aranburu Iturbe, Estrategia eta komunikazio zuzendaria. Ondo etorriak gure batzordera. Batzordeak eskatutako agerraldia da hau, EITBk 2017an eta 2018an egindako jardueren ebaluazioa aurkezteko. Eta zuoi hitza eman aurretik, Elkarrekin Podemosen izenean, Eukene Aranak dauka aurkezpena egiteko denbora.

...

(2. zintaren amaiera)

(3. zintaren hasiera)





... Eta zuoi hitza eman aurretik, Elkarrekin Podemosen izenean, Eukene Aranak dauka aurkezpena egiteko denbora.

**ARANA VARAS** andreak: Bai. Egun on, denoi. Egun on, eta eskerrik asko etortzeagatik.

Señora Iturbe, desde la comparecencia en la que vino usted aquí a presentarnos la digamos evaluación del último Plan Estratégico 2014-2016, desconocemos cómo están trabajando en el ente. Esto es, si tienen un plan estratégico informal, una planificación estratégica o algo similar o, si por el contrario, carecen de ninguna línea de orientación. Hemos solicitado su comparecencia hoy, para que nos aclare estos aspectos.

En aquella comparecencia, todos los grupos con la excepción del PNV criticamos la autocomplacencia y, en nuestro caso, la falta de rigor en la evaluación, por llamarla así, de alguna manera, que de las actividades y de sus resultados hizo usted en esta comisión. Nos preocupa que, entonces, dijera que estaba preparando el próximo plan estratégico y que lo remitiría al... que lo remitiría a la comisión. Y a fecha de hoy, 19 de noviembre del 2018, no lo ha hecho. Quisiéramos cuándo lo va a hacer y si nos puede anticipar algo sobre el mismo.

Y, también, le hemos invitado a venir hoy a esta comisión a explicarnos cómo han evaluado las actividades desarrolladas por EITB durante el periodo de tiempo en el que decayó el anterior plan estratégico hasta la fecha. Pensamos que la rendición de cuentas, ya que no ha sido a iniciativa propia, es decir, a iniciativa suya, nos corresponde exigirla a los grupos de esta cámara. Al menos, nosotras lo queremos hacer hoy. Así que, besterik ez.

Eta eskerrik asko.

**BATZORDEBURUAK:** Eskerrik asko. Eta orain bai, erantzuteko txanda zuona da.

**EITBKO ZUZENDARI NAGUSIAK** (Iturbe Mendialdua): Egun on, legebiltzarkide jaun-andreok.





Barkamena eskatu behar dizuet, lehenengo eta behin, agendan azaroaren 16ko deialdia zuzendu egin genuen, 19ra pasatzeko nahasketa baten eraginez. Gure (plan eta?) astelehenerako geneukan agerraldi hau, ostiral goizean ohartu ziguten. Baina Madrilén nintzen, ez zegoen aukerarik honaino etortzeko. Komisioko presidenteari gertatutakoaren esplikazioak eman genizkion, eta sentitzen dudala adierazten dizuet.

Arana andereari, ba bi gauzatxo: Batetik, guk 2017-2020ra arteko ildo estrategikoak baditugula. Horiek hor daude, guk ez dugu lan egiten ildo estrategikorik gabe. Eta, bestetik, ba pasatzera noa nolabait gaur eguneko agerraldiaren zereginei erantzuten, ezta?, 2017 eta 2018ko eginkizunei buruz. Orduan, goazen gaurko agerraldira.

Martxoaren 5ean agerraldia izan nuen EITBren Kontrolerako Legebiltzar Batzorde honetan, EITBren 2017ko urtearen ebaluazioa eta balantzea egiteko. Orduan, EITBk indarrean duen programa kontratuaren betetzearen kontu eman nuen. Agerraldi hau prestatzeko, Arana andereak abuztuaren 29an egindako eskabidean dioen, hau hartu dut kontuan: "La actividad de EITB durante los años 17 y 18 requiere una evaluación y rendición de cuentas ante esta comisión. Por tanto, se hace necesario conocer cuáles han sido las actividades y cuál la evaluación de que de las mismas realiza la Dirección General del ente en el período indicado".

Edonola ere, eskura dituzue egun hartako txostena eta agerraldia. Eta horregatik gaurkoan elementu berri batzuk eskainiko ditut, nire ustez inportanteak bezain argigarriak izan daitezkeenak, EITBren jardura ezagutu eta ebaluatzeko. 2018ko ekitaldiko ebaluazio formala aurkezteko agerraldia neronek eskatuko dut, eta datorren urteko martxo aldera izan daiteke, Legebiltzarrak zehazten duen agendaren arabera.

Gaurko gaiari dagokionez, gaineratu nahi dut informazio zabala duzuela eskura dagoeneko Legebiltzarrean EITBko eta EITBren sozietateetako 2018ko ekitaldiaz. Izan ere, datu asko eskaintzen dira 2019ko aurrekontuen aurreproiektuko memorian eta 2019rako planifikazioa. Gaurko agerraldian, beraz, martxoaren 5eko agerralditik eta aurrekontuen aurreproiektutik kanpoko informazioa eskainiko dizuet. 2017garren eta 2018garren urteez arituko naiz, baina ez banaka, baizik eta biak batera hartuta.

Esan behar dut Programa Kontratuaren jarraipena EITBren Administrazio Kontseiluan urtean hiru aldiz egiten dugula. Azkeneko azterketa joan den





irailaren 25ean izan zen eta, orduan, aurkeztutako datuen arabera, 2018ko helburuak % 90etik gora beteko direla aurreikusi genuen. Eusko Jaurlaritzaren eta EITBren arteko programa-kontratuaren jarraipen batzordeak aurtengo martxoaren 7an egin zuen 2017ko jardunaldiaren azterketa, eta balorazioa positiboa zen. Honela dio aktak: "Aho batez onartzen dira kontu ematea eta kontratu-programaren 10.1 klausula betetzeko egin diren ekimen guztiak".

Programa-kontratuan EITBk 11 konpromiso hartzen ditu bere gain, eta horien jarraipenerako aginte-koadro bat dago. Azter ditzagun, bada, EITBren 11 konpromiso horiek eta egin dezagun, bide batez, euren jarraipena eta ebaluazioa.

1. konpromisoa: Euskarazko eta gaztelaniazko zerbitzu publiko multimedia eskaintzea. Telebistan bost kanal ekoizten ditugu, lau Euskal Herrian, eta Canal Vasco European eta Amerikan. 2017tik, ETB1 eta ETB2 bereizmen handian ere eskaintzen ditugu. Eta baita ere ETB1 eta ETB2 *streaming*ean daukazue edozein soportetan: bai telebistan, mobilean edota tabletetan, edozein euskarritan. Hori ere nobedadea da.

Telebistaren bidez, egunero Euskal Autonomia Erkidegoan milioi bat ikuslek baino gehiagok konektatzen dute EITBrekin. Nazioarteko neurketak ez dira zehatzak, baina Euskal Herritik kanpo, ehunka milako irismena izan dezakegu. Canal Vascoren azken gogobetetasun inkesta 2017koa da, eta munduan zehar bizi diren 2.600 ikuslek hartu zuten parte.

Bestalde, erantsiko nuke telebistaren audientziei begira, 2017an lau kateen artean, 2016ko...

(3. zintaren amaiera)

(4. zintaren hasiera)

... zuten parte.

Bestalde, erantsiko nuke telebistaren audientziei begira, 2017an lau kateen artean, 2016ko datuekin alderatuta, lau dezima igo genuela, hau da, % 30etik gorako igoera. Eta 2018an ere, 2017koarekin alderatuz, baita ere proiektzioa da audientzien datuak igotzea beste hiru dezima. Hau da, beste % 30etik gertu.





Irratian, bost kanal produzitzen ditugu; hiru, hitzezkoak: Euskadi Irratia, Radio Euskadi eta Radio Vitoria; Gaztea, belaunaldi gazteari zuzenduriko entretenimenduzko irrati formula da. Bosgarren kanala EITB Musika da, helduentzat. EITBren Irratiek 400 eta 500 mila entzuleren artean dituzte komunitatean eta Nafarroan. Euskal Autonomia Erkidegoan entzule gehien duen irrati taldea da, SER irrati katearen aurretik.

2017an, telebistan eta irratian, programa-kontratuko helburuak bete egin ziren, eta 2018an iguera gertatzea aurreikusten dugu. Beraz, bi urteak onak izango dira, datu zehatzak urte amaiera arte ez izan arren. Bestetik ere, erantsiko guke difusioen internazionalen ere, *appen* bitartez eta Interneten bitartez, izango dituztela eskuragarri gure edukiak hemendik aurrera.

2. konpromisoa: Zerbitzu publikoa aro digitalera zabaltzea; Internet erronka. EITB.EUSek bere edukiak bi hizkuntzatan eskaintzen ditu. Horrez gainera, EITBn hiru *app* garatu dira euskara hutsez: Gaztea, gazteentzat; Goazen, haur eta nerabeentzat, eta Hiru3, haurrentzat. Bestalde, EITB Nahieran zerbitzuak aukera ematen du telebista eta irrati programak edozein ordutan jarraitzeko, munduko toki guztietatik Internetera konektatutako edozein gailutatik. 2017an, egokitzapen teknikoak egin dira Android sistema eragilerako, eta honek esan nahi du hainbat *smart* telebista Android sistema operatiboa dutenek, adibidez Philips, Sony eta marka zuriak duten hainbat telebista *smartak*, gure *appa* izango dutela eskuragarri, gure telebista guztietako edukiak eskuragarri. Eta ez da edozelako aurrerakuntza.

Bestetik, gure telebista Samsungeko eta Panasonic-eko *smart* telebistan horietan ere, gure *appa* izango duzue eskuragarri, gure telebistako eduki guztiak eskuratu ahal izateko. Bestalde, honetaz gain, HbbTV protokoloa erabiltzen dituzten *smart* telebista guztietan botoi gorriari emanez, izango duzue baita ere gure eduki guztiak sailkatuta. Eta horrez gain, *streaming* bitartez, gure kateak 1 eta 2 eskaintzeko aukerarekin. Horrez gain, botoi berdeari emanez, aurreko zazpi egunetako edukiak ere eskuragarri eta ikusgarri izango dira. Eta irratiekin horrela ere ari gara lan egiten.

EITBk bere eredu propioa du hedabide sozialetan baita ere, Twitter, Facebook eta Instagram erabiltzen ditu bere edukiak eta eragina zabaltzeko. Emaizak direla eta, Legebiltzar honek EITBri buruz eskatu zuen Soziometrokoak aipa daitezke. Soziometroko bi galdera interesatzen zaizkigu: Ezagutzen duzu EITBren webgunea EITB.EUS? Baietza % 27koa izan da. Bestalde, EITBren webgunean sartzeko maiztasuna zein den galdetuta, % 53k





erantzuten du gutxienez astero egiten duela. Esan dezagun, hala eta guzti, Interneteko kontsumoak ondoen aztertzen dituzten ikerketa-sistemak Google Analytics eta Comscore direla. Jakingo duzue, hedabideen webgunetan sartzeko modurik normalena zeharkakoa da. Eta EITBren kasuan, aurtengo trafikorearen sorburuak hauek dira. Zuzen-zuzenean sartu direnak dira: hau da, zuzenean EITB.EUSera: % 22a, eta hain zuzen, horiek esango zuten EITB.EUS ezagutzen dutela. Baina zeharka gure edukietara joan direnak, Google bitartez % 58a izan dira, eta Facebook eta beste iturrietatik joandakoak % 20a.

EITB.EUS, kontsumo handia edukizera heldu da, eta webgunera heltzeko moduak era gehitu egin dira. Hori garrantzitsua da. Google-n eta sare sozialetan nabigatzen dugunean, ez diogu ibilbideari erreparatu, baina askotan EITB.EUS webgunera eramaten gaitu. Hauek dira 2018ko EITBren interneteko datu ofizialak: Google Analytics eta OJDk ziurtatzen dute 3,6 milioi erabiltzaile bakar dituela hileroko EITB.EUSek. Google Analytics eta OJDk ziurtatzen dute 160 mila erabiltzaile bakar dituela egunero EITB.EUSek. Comscore erakundeak ziurtatzen du Espainian hileroko 1.380.000 pertsonak jarraitzen dituztela internetez EITBren edukia. Datu horiek adierazten dute EITBren interneteko apustua oso indartsua dela.

Konparazio bat eskainiko dut, datuaren dimentsioa ondo ulertzeko. Corporación RTVEk Interneten dituen audientzien datuak EITBrenak baino bost aldiz handiagoak baino ez dira. Kontuan hartuta Estatuko biztanleria Euskal Herrikoa baino 15 aldiz handiagoa dela, horrek esan nahi du EITB hiru aldiz eraginkorragoa dela. Nahiz eta gure weba, EITB.EUS ez ezagutu hainbeste pertsonak, bai esan behar dugu EITBren edukia ondo posizionatzen badira sare sozialetan, EITB.EUS webera ezagunagoa izango dela, zer azken batean, nahiz eta traba joan, ba joaten dira eta bukatzen dute gure webean, informazio horren bila doazenean.

Beraz, EITBren estrategia eduki asko eta askotarikoak argitaratzea da. Baina horrekin batera, Google-n eta sare sozialetan eduki horiek egoki posizionatzeko algoritmoak eta irizpideak lantzea da. Horretan ari gara. Alor honetan, urrats irmoak eta indartsua emateko, eta EITB aitzindari jartzeko, Transformazio Digitalerako zuzendari berria izendatu dugu aurtengo. Eta une honetan, hainbat proiektu ditugu martxan:

1. proiektua: Lantaldea sortu da...





- (4. zintaren amaiera)
- (5. zintaren hasiera)

... berria izendatu dugu aurten. Eta, une honetan, hainbat proiektu ditugu martxan.

Lehenengo proiektua lantaldea sortu da, profesional alor anitzekoa eta transbertsala, Transformazio Digitalerako zuzendaritzaren lidergo argiarekin transformazio digitalaren estrategia garatu eta ezartzeko. Horretarako, pertsonak trebatzen ari dira, eta proiektuaren komunikazioa egiten ari dira, edo ari gara, EiTBren barruan eta EiTBtik kanpo.

Beste proiektu bat, edo bigarrena, erredakzio-taldean antolakuntzan aldaketak egiteko lehenengoko prozesu azterketak egiten ari gara.

Beste bat, talde multimedia transbertsalak sortu dira eduki ildo berrietarako; hor sartu daitezke, bai breaking newsak edo GAZTEAren eredu.

Laugarren proiektua, politika editorialak berrikusten ari gara gure kanaletan eta hirugarrenen kanaletan formalizatu eta ezartzeko. EiTBren edukien dekalogoia prestatzen ari gara, sistema konbentzionalerako, digitalerako eta sare sozialetarako.

Bosgarren proiektua, erabiltzaileen erregistro iraunkor bat eratzeko, hainbat pauso eman ditugu. EiTBk hilabete batzuk daramatza Big Datako eredu propio bat garatzen, eta 2019an aurrerakuntza inportanteak espero dira.

Seigarren proiektua, EiTBren plataforma digitalak berritzen ari gara, bai gure app propioak, bai HbbTv estandarreko telebistetarako zerbitzuak, eta bai EiTB nahieran ere. Helburua da zerbitzua eta erabiltzaile esperientziak bermatzea.

Zazpigarren proiektua, gazteei zuzendutako edukietan, EiTBn gero eta normalizatuago dago produktu transmediak eta interneteko erabiltzaile berriei egokitutako edukiak ekoiztea. Interneteko konpromiso honen betetze-maila altua da, baina oraindik indartsuago izan behar dugu erronka digitalaren aurrean.





Hirugarren konpromisoa, Kalitate oneko informazioa bermatzea. Bai audientzia datuetan, bai emaitza kualitatiboetan, 2017an eta 2018an EiTBen albistegiek liderrak izaten jarraitzen dute telebistan zein irratian. Hainbatetan adierazi bezala, EiTBen konpetentzia osatzen duten kanalen aldean, EiTBen ezaugarriak sinesgarritasuna, inpartzialtasuna eta pluraltasuna dira.

Hori berresteko, oso baliagarriak gertatu dira EiTbko lantaldearentzat Legebiltzar honek EiTbri buruz egindako ikerlanak. Ebaluazio-bide bikaina suertatu da Legebiltzarrak eskatutako "Estudio cualitativo preliminar sobre el Audiovisual Público Vasco", ikerketa, ekainean argitaratua. Txostenaren 15. orrialdean, adierazpen espontaneoan arloan hau da ikerketaren ondorio nagusia: EiTb informazio sinesgarria ematen duen iturri bat da.

Hona ikerketan azpimarratutako lau *verbatim* oso errepresentatiboak:

"Si quieres una información un poco objetiva, más te vale ir a EiTb". 46-70 urteko, Sopelako taldea.

"Cuentan con periodistas de nivel alto, hacen debates que aportan mucho a la sociedad vasca". 46-70 urteko, Donostiako taldea.

"Yo lo veo con más objetividad, con noticias más precisa y menos manipuladas". 46-70 urteko, Laudioako taldea.

"Yo en imparcialidad le apruebo, creo que no se le nota como a otros". 18-30 urte arteko, Gasteizko taldea.

Aipatutako ikerketan, diskurtso espontaneotik, beste hiru ideia nagusi ateratu dira: "Una vez volcado el discurso espontáneo sobre EiTb, se preguntó sobre la utilidad social atribuida al ente, o lo que es lo mismo, las aportaciones que se cree que realiza EiTb a la sociedad vasca. Las principales aportaciones de EiTb a la sociedad vasca, según las aportaciones de las personas participantes en los grupos de la discusión son tres: uno, EiTb refleja nuestra identidad; dos, EiTb es el referente informativo de Euskadi; tres, EiTb entretiene a la sociedad".

Eta Legebiltzar honek eskatutako ikerketan honako hau adierazten da literalki: "EiTb se constituye en la actualidad en el principal referente informativo de Euskadi, lo que la ciudadanía considera además que debe ser su principal función".







Hona ikerketan horretatik azpimarratutako *verbatim* oso errepresentatiboak:

"Las noticias de aquí nos interesa verlas con rigor y seriedad. Para eso está EiTb". 46-70 urteko, Sopolako taldea.

"Cuando la gente se quiere informar, va a cualquier informativo de EiTb. Para mí esto es lo más importante; tienen todo actualizado al momento y hay muy buenos profesionales". 46-70 urteko, Bilboko taldea.

Halako iritzien aurrean, ikerketak honela dio: "Cuando se solicita una valoración sobre la imparcialidad en el tratamiento de la información, y teniendo en cuenta que la cercanía es un elemento unánimemente atribuido a EiTb, las valoraciones se centran en torno a la imparcialidad. En relación a este aspecto, se perciben dos posturas claramente diferenciadas: Una mayoritaria que cree que alcanza un grado de imparcialidad notable, sobre todo en comparación a la mayoría de los medios conocidos, y otra que considera que está lejos de ser imparcial y es minoritaria".

EiTbri objektibitatea aitortzen zaio gai politiko delikatuen trataeran: "Katalunian nik benetan gertatu zena ikusi nuen ETBn. Dena den, beste gauza bat kontatzea nahi dutenek beste kate batzuetara jo dezatela." 31-45 urteko Bilboko taldea.

EiTbri iritzien pluraltasuna aitortzen zaio: "En el programa de Klaudio meten a un tertuliano de cada palo y les dejan tiempo para explayarse y opinar". 46-70 urteko Laudioko taldea.

EiTbri albistegietan profesionaltasuna aitortzen zaio: "Antes de dar una información suelen contrastarla. No son de los que lanzan algo y luego ya veremos. Son más comedidos." 46-70 urteko Laudioko taldea.

Ikerketa hori eta Legebiltzarrak agindutako Soziometroa ildo beretik datoz. Soziometroan albistegiez eginiko galderak Eurobarometroan egiten diren berak dira, eta horrek modua eskaintzen digu EiTb eta Euskadi Europarekin konparatzeko.

Europar Batasunean, medio fiable. Eraitza lehena da Finlandia, bigarrena Danimarka, hirugarrena Suedia eta laugarrena EiTb-Euskadi.





Espainiako estatua azken hirugarrena. Pluralidad de puntos de vista y opiniones. Emaidza posizio ertainean. Espainiako Estatua azken bigarrena. Información libre de presiones políticas o comerciales. Emaidza, lehena Finlandia, bigarrena Danimarka, hirugarrena...

(5. zintaren amaiera)

(6. zintaren hasiera)

... Espainiako Estatua, azken bigarrena.

Información libre de presiones políticas o comerciales. Emaidza: lehena Finlandia, bigarrena Danimarka, hirugarrena Herbehereak eta laugarrena EITB Euskadi, Espainiako estatua azken bigarrena.

Legebiltzar honek agindutako Sociometroak argi asko uzten du Euskal Autonomia Erkidegoko hedabideek, EITB tartean, informazio mikroklima propioa dugula, Estatukoekiko desberdina. Eta errealitate hori "aktibo" oso baliotsua da Euskal Herrirako, demokraziaren ikuspegitik. EITB da Euskal Autonomia Erkidegoko erreferentzia albistegietan, eta beraren eskaintza, osoa eta kalitatekoa, euskaraz eta gaztelaniaz egiten da telebistan, irratan eta Interneten. EITBren informazio zerbitzu hori ebaluatzen dituzten adierazle kualitatibo eta kuantitatiboek emaitza positiboak dituzte. Eta hori gizartearen balorazioa da. Ez da iritzia, ez da batzuen gogoia, datuetan oinarritutako ebaluzioa da. Eta horrek hala izaten jarrai dezan, aurrera begira proiektu batzuk ditugu abian EITBren informazio zerbitzuarekin loturik:

1. proiektua: Albistegiak geure agenda propioan gehiago oinarritzea. Horretarako, besteak beste, eksklusibak eta analisi propioak lortu behar ditugu, adibidez *EITB Focusen* seriea bereziki zainduz, eta hauteskunde aurrean eta hauteskunde garaian neutraltasuna erakutsi behar dugu.

2. proiektua: eitb.eus interneteko euskal informazio-erreferentzia bilakatzea etengabe informazio eguneratua emanez. Aurrera begira, Big Dataren bidez, soluzio pertsonalizatuak sortzea dugu helburu.

3. proiektua: Erreferentziazko komunikatzaile eta aurkezleak sustatzea kalitatezko kazetaritza lantzeko, profesionaltasuna eta independentzia ezaugarri dituenak.





4. eta 5. konpromisoak: Euskara sustatzea eta euskal gizarte elebidun normalizatua bultzatzea. Eta horrekin batera, euskal kultura zabaltzea. Gure aurkezpenetan ia beti bereizirik aztertzen ditugu bi konpromiso horiek, baina gaur baliagarriago gerta dakiguke biak batzea. EITBk telebistaz, irrati eta Internetez eskaintzen ditu bere euskarazko produktuak. Telebistan, ETB1 eta ETB3 dira euskarazko kanalak. Irratian, Euskadi Irratia eta Gaztea. Interneten, eitb.eus, eta Goazen, Gaztea eta Hiru3 *app* bereziak. EITBren kanalen diseinu horretarako, bi dokumentu dira erreferentzia nagusiak: Programa Kontratuak esplizituki ezartzen du zein den egun EITBren kanal bakoitzaren hizkuntza eta eduki-profila; 2013ko uztailaren 23an EITBko Administrazio Kontseiluak aho batez berretsi zuen irrati eta telebistako kanalen profila, zuzendaritza honi EITBren programazio-lerroak finkatu zizkionean.

Ondorioz, kanalen profilei buruz eztabaidatu behar bada, Eusko Jaurlaritzari eta Administrazio Kontseiluari dagokie eztabaida. Eusko Jaurlaritzak programa-kontratuan zehazten du zein den EITBn hizkuntzen eta edukien banaketa. Administrazio Kontseiluak, bestalde, EITBren printzipio eta programazio lerroak onesten ditu. Erakunde horiei dagokie kanalen kopurua eta bakoitzaren profila erabakitzea. EITBren kanalen profilen debatean, dena dela kalean da. Gogoan hartzeko dira, beraz, Legebiltzarrak eskatutako bi ikerketa horietan egiten diren hausnarketak.

Guk euskaldun berriei begira, bestalde, EITBk HABEren eta AEKren eskura izango du bere programa gordailua, ikas materiala sortzeko. Kultura dela eta, sustapen-hitzarmenak sinatzen ditugu, eta aurrera pausu berriak egiten ditugu euskararen eta euskal kulturaren arloak. Hauek dira proiekturik interesgarrienak:

1. proiektua, ETB1eko edukien zuzendaritza bat sortu izana talde sortzaileak dinamizatzeko eta telebista gehien kontsumitzen den orduetan edukia finkatzeko, batez ere Gaur Egun Biren *acessean* eta *prime timean*. Helburua da audientzia metatua gehitzea hamarretatik hamaika eta erdietarako tartean. Esan beharra genuke hemen ere, ETB1 gaur eguneko audientzia ez duela lortu 2010etik ez gero.

2. proiektua: Haurrentzako euskarazko eskaintza interesgarri bat finkatzea, multzo txikia izan arren estrategikoa den publikoa delako. Eta aurten, azpimarratuko genuke fikzioa ere erantsi dugula ETB3an, eta ildo horretatik jarraituko dugula. Aurten erantsi dugun fikzioa da hiruzpalau, eguneroko fikzio txiki bat, eta harrera ona duena.





3. proiektua: Euskaraz jarduten duten youtuberren presentzia handitzea, Gazteko DJ-ak Youtube bidez musika-preskriptore bihurtuz.

4. proiektua: Radio Euskadi eta Radio Vitoria irratieta euskararen unibertsoa oraindik ageriago egitea. Horretarako, euskararen komunikazio-eremuko eragileekin kolaborazioak egingo dira Euskara-Berri, Euskararen unibertsoa, Alea eta gisako irratsaioen bidez.

5. proiektua: Euskararen normalizaziorako ekimen berriak, hala nola Euskaraldia, GipuzkoaLab, eta abar babestea eta haiekin konprometitzea. EITBn, horren haritik, web-serie proiektu-pilotuak aktibatuko dira.

6. proiektua: EITB Kultura dibulgaziorako proiektu transbertsala indartu egin behar dugu. Eta dagoeneko, talde transbertsal bat daukagu martxan, EITB Kultura weba edo kanala indartzeko. Puntu honetan, era berean, aipatu beharrekoak dira ikus-entzunezko industriarekin eta irakaskuntza sektorearekin aurrera eraman nahi ditugun proiektuak. Horrelako proiektuak programa-kontratuko 9. konpromisoari dagozkio, eta 2017-2018an hauek daukagu martxan:

1. proiektua: EITBk atari interaktibo bat jarri du, ekoiztetxeei zabalik dagoena, proiektu-eskariak kudeatzeko. Izan ere, edukien kontratazioan, sistema osoa berriztatu da, publizitate-, lehiaketa- eta gardentasun-printzipioei jarraiki.

2. proiektua: Talentua identifikatzeko eta garatzeko proiektu bat abiarazi dugu Euskal Herriko 4 unibertsitatearekin eta ikus-entzunezko...

(6. zintaren amaiera)

(7. zintaren hasiera)

... bigarren proiektua, talentua identifikatzeko eta garatzeko proiektu bat abiarazi dugu Euskal Herriko lau unibertsitatearekin eta ikus-entzunezko sektorearekin.

Hirugarren proiektua, euskarazko ikus-entzunezko komunikabideekin lankidetzan proiektuak lotu ditugu. GipuzkoaLab eta Tokikom erakundeak aipatu nahi ditut bereziki.





Laugarren proiektua, mundu akademikoarekin akordioak ezarri dira trebakuntza dualaren garapenerako, batez ere ikus-entzunezkoen arloan. Pauso berriak eskainiko ditugu formazio dualaren esparruan.

Euskal zinegintzak bere arorik onenetarikoa bizi du egun. EiTBk badu zati bat lorpen horretan. Hiru arrazoi emango ditut:

Krisiaren unerik gogorrean ere EiTBk eutsi egin dio finantzazio politikari, eta zinegintzak ez du etenik izan. Azken urteotako titulu ospetsuak, Loreak, Amama, Handia, Dantza, eta beste hainbat, urtetako ibilbide luze bati esker sortu dira.

EiTBren zine batzordea lan bikaina egiten ari dira, ari da, proiektuak banan-banan aztertuz eta proiektu askori, onetsi aurretik, gidoia berrikusteko eskatuz. EiTBk proiektuen kalitatea hobetzen laguntzen du, eta proiektu bati bide ematen ez zaionean, arrazoiak azaltzen zaizkio aurkeztu duenari.

EiTBk gainera bi politika ditu zinegintzan harrobi lana sendotzeko: film laburrak zaintzen eta sustatzen ditu hortik sortzen direlako zuzendari berriak. Eta urteak daramatza EiTBk emakume profesionalen aldeko apustu sendoa egiten.

Esandakoaz gainera, kultura erakundeekin harreman estua dugu. Akordioak ditugu musikaren, artearen eta zinearen arloko 60 bat erakunde nagusienekin. Euskara arloan, hitzarmenak ditugu Euskaltzaindiarekin, Eusko Ikaskuntzarekin, Durangoko Liburu eta Disko Azokarekin, Ikastola elkartearekin, euskal eskola publikoarekin, Euskaraldiarekin, Korrikarekin, eta beste hainbatekin. EiTB eta erakunde horiek pozik gaude elkarlanaren emaitzekin.

Seigarren konpromisoa, euskal kirola sustatzea.

EiTBk eskaintza zabala du euskal pilotaren, arraunaren, herri-kirolen eta bertako beste kirol batzuen emanaldiei dagokienez. Baita pala, erremonte eta zestako partidetan ere.

Euskadiko selekzioen politika babesten da, eta kirol-lehiaketei jarraipena egiteaz gain, zuzeneko emanaldiak eskaintzen dira lau euskal selekzio hauen partidetan: futbola, saskibaloia, sokatira eta eskubaloia.





Badira lauzpabost urte EiTBk emakumeen kirolaren berri emateko konpromisoa hartu zuela, eta egun hainbat ekinbide ditugu arlo honetan.

Lehenengo proiektua, EiTBren komunikabide guztietan emakumezkoen kirola normalizatzeko ekintza-plana dago, berdintasun-planean jasotako helburua sendotzeko.

EiTBn hainbat lantalde daude martxan berdintasun-planaren garapenerako. Esan bezala, kirolarena da horietako bat, egin behar duen pauso berria nabarmendu nahi dut. Azaroaren 29an, datorren astean hain zuzen, Bilbon, emakumezkoen kirola normalizatzeko helburuz kazetariak eta adituek sortutako kode deontologikoa aurkeztuko dugu, eta euskal hedabide guztiak nahi ditugu bertan. EiTBko kazetari eta teknikariak hartu dute parte prozesuan eta aurkezpenean izango naiz, EiTBren babesa adierazteko.

Emakumezkoen kirola gai garrantzitsua da, eta hala dira beste batzuk ere, aipatu gabe utzi nahi ez nituzkeenak. Bat, kirolaren arloan euskal komunikazio esparrua sortzea da. Urrats hauek aurreikusi dira: Emakumezkoen kirolaren jarraipenean eta trataeran euskal prentsak eta EiTBk norabide aurreratu berri bat abian ezartzea; Kategoría gorenetakoa eta eliteko euskal kirolariei jarraipena egitea, horretarako Basque Team fundazioa sendotuz; Euskal kirol-talde mediatikoenen jarraipena egitea, informazio zabala eta entretenigarria emanez gure ikuspegi eta balio propioetatik; gure kirolean, pilotan, txirrindularitzan eta estropadetan hedabide erreferentea izatea; eta herri kirolen ikusgarritasuna zaintzea eta prestigioa ematea.

2017 eta 18ko urteetan, esan bezala, konpromiso markoa berri egin dugu. Dakizuenek, ETBn kirol zuzendari berria izendatu dugu orain gutxi eta berrikuntzak izango ditugu konpromiso honekin lotuta.

Zazpi eta zortzigarren konpromisoa: ekonomia berrindartzeari, enpleguari, ikerkuntzari, autogobernuari, gizarte kohesioari eta printzipioen nahiz balioen zabalkundeari buruzko ekimen instituzionalak sustatzea. Eta Euskal erakundeek onartutako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planeko ekimen instituzionalak gure egitea eta sustatzea.

Konpromiso honen atzean beti beharrezko den gizarte kohesioaren egitekoa dago. EiTBko albistegietan, debateetan eta bestelako programetan, ondoko hiru esparru hauek txertatzen ditugu:





Euskal Herriko ekonomia berrindartzea. 1980ko hamarkadako eta 2008ko krisialdien eraginak izugarriak izan dira. Horren aurrean, gure helburua ekonomia berrindartzea eta gizarte ongizatea ziurtatzea bada, funtsezkoa da gizarte eragileekiko konfiantza babestea. Horregatik, EiTBn ekonomiaren, enpleguaren eta ikerkuntzaren arloko guztiari garrantzi nabarmena ematen zaio. Horretarako izendatu genuen arlo-buru bat ekonomi gaietan aditua dena.

Autogobernua babestea eta prestigiatzea da gizarte kohesiorako beste bide bat. Autonomia Estatutuko 19. artikulua baliatuz sortu zen, eta horrenbestez, EiTBren egitekoa da estatutu hori zaintzea. Bereziki aktiboak izan nahi dugu Kontzertu Ekonomikoaren, Autogobernuaren eta euskal Instituzio politikoaren babesean. Ez dugu ahazten, dena dela, hedabideen lana instituzioak kontrolatzea eta kritikatzeko ere badela.

Gizarte-kohesioan beste bi alderdi nabarmendu nahi ditut. Alde batetik, populismoa indartzen ari den arren EiTBren jarduera giza eskubideetan eta demokraziaren...

- (7. zintaren amaiera)
- (8. zintaren hasiera)

... beste bi alderdi nabarmendu nahi ditut.

Alde batetik populismoa indartzen ari den arren EiTBren jarduera giza eskubideetan eta demokraziaren balioetan oinarritzen da. EiTBren estilo liburuaren erreferente bat da, giza eskubideen ikuspegitik tratatzen dituelako gizarte honetako gatazkak, hala nola, immigrazioa, delituak, laiktasuna, desgaitasunak, ingurugiroa, eta abar.

Bestalde, EiTBk politika sozialak babestu egiten ditu, hala nola hezkuntza, osasuna, eta pertsona eta familien duintasuna. Eta gizarte plataformen salaketei eta eskakizunei komunikatzeko kanal bat eskaintzen dugu.

Puntu hau ixteko, azkenik, azaroaren hamarretik abenduaren hamarrera giza eskubideekin eta bizikidetzarekin loturiko saiok indartu egiten ditugu. Testuinguru horretan, *Herenegun* proiekturako, bueno, baliagarri momentu honetan ez dakit. EiTBren *Las huellas perdidas* dokumentala ekarpen garrantzitsua egin zuen eta une honetan, dokumental berriak egiten ari gara. Eta martxan jarri dugu bat emakumeak izanik protagonistak, lau





emakume, Miramarren elkartu ziren eta bizikidetzako elkarrizketak egin ziren eta euren iritzi guztiak konpartitu zituzten. Eta horiei buruz egingo da dokumental bat.

Hamargarren eta hamaikagarren konpromisoak, EiTB erakundea sendotzea, enpresa gobernu arduratsu batekin.

Arlo honetan gauza asko egiten ari gara, eta garai berri bat eraiki. Ez da asko ikusten den arloa, eta horregatik interesa dut beraren berri emateko. Hala, enpresa barruko giroa leuntzeko eta EiTBko langile izatearen gogobetetasuna suspertzeko, hainbat proiektu jarri ditugu martxan:

Lehenengo proiektua, giza baliabideen zuzendaritzako ekipoa berritu eta sendotu egin da. Izaera estrategikoa duten gizarte eta egitura aldaketak garatu behar ditugu datozen urteotan, eta inportantea da ekipo hori ondo finkatuta egotea.

Bigarren proiektua, erakundearen informazioa sendotzea, barnera zein kanpora begira, egungo eta etorkizuneko erronkei buruzko sentsibilizazio eta ulermena sustatzeko. Prozesua abian dago, enpresa giroa baretua dago, eta 2019an urrats inportanteak emango dira barne kohesioari begira.

Hirugarren proiektua, laneko giroa hobetzen lagunduko duen gizarte-ongizaterako proiektu bat diseinatu dugu eta urte amaierako abian izango dugu.

Laugarren proiektua, segurtasun juridikorako sistema berriak ezarri ditugu etengabe aldatzen ari den arau eta jurisprudentzia ingurune batean. Bestalde, arlo juridikoaren zuzendari berria hautatzeko prozesua abian dago.

Bosgarren proiektua, prestakuntza plan berritzaile bat diseinatzen ari gara transformazio digitala eta garapen profesionala errazteko.

Seigarren proiektua, gaitasunen eta sailkapen profesionalen eredu kontzeptual bat diseinatzen ari gara aro digitalerako, egungo eta etorkizuneko testuinguruarekin bat etorriko dena.

Zazpigarren proiektua, lan-eskaintza publikoa prestatzen hasi gara egiturazkoak diren lanpostuetan tenporaltasun tasa murrizteko.







Zortzigarren proiektua, antolakuntza eraginkorrago baterako neurriak hartzen ari gara, pertsonen eta baliabideen planifikazio-sistemak integratuz.

Horrez gain erakunde publiko modura, hainbat proiektu izan ditugu 2017. eta 2018. urteetan, eguneratze eta modernizatze ikuspegitik ia guztiak garaiz garaituak.

Hauk aipatu ditzaket:

Lehenengo proiektua, kudeaketa sistemak *business intelligence* erreferentzia-ereduetara egokitzen ari gara.

Bigarren proiektua, EiTBen *corporate compliance* proiektua oso aurreratua dago enpresaren erantzukizun penala saihesteko. Proiektu honen barruan dago EiTBen etika eta jokaera kodea ezartzea zuzendaritza, plantilla, bezero eta hornitzaileentzat.

Hirugarren proiektua, dokumentuen eta fitxero elektroniko kudeaketarako sistemak egokitu dira segurtasun-eskema nazionalarekin bat etor daitezen.

Laugarren proiektua, 2017-2020rako aldirako Inbertsioen plana diseinatuta dago, eta garapena diru-horniduraren arabera egingo da.

Legebiltzarkide jaun-andreok, agerraldi hau bukatu aurretik bi mezu eman nahi ditut, nire ustez mezu garrantzitsuak:

Bat, EiTb gaur egun baretuago eta sendoago dago. Gure egitasmoaren erdigunean transformazio digitala eta pertsonen balioa indartzea jarri dugu. Garai berrian gaude, konfiantza zubiak eraikitzen langileen ordezkariekin.

Bi, Legebiltzarrak agindutako ikerketek gizarteak EiTbrekiko konfiantza duela erakutsi dute eta pozarren hartu dugu berria. Ez dut duda izpirik, gerora ere, euskal gizarteak bere konfiantzako hedabidea izango duela EiTb. Etorkizunak zailtasunak eta mehatxuak dituen arren, aurre egiteko gai gara norabide jakin bat markatuta dugulako.

Arana anderea, informazioaz gain argumentu eta datuetan oinarritutako balorazioa eskaini dizuet, zuk eskatu bezala. EiTbk bere xedea





oso gogoko du, eta honela daukagu laburbilduta gure eguneroko lanaren gida:

Gure xedea, zerbitzu publikoa gara, pertsoneri hitz egiten diegu eta elkarri eragiten diogu. Informazioa, dibulgazioa eta entretenimendua eskaintzen ditugu. Euskal kultura eta euskararen normalizazioa eta erabilera sustatzen ditugu.

Gure ikuspegia, korporazio multimedia liderra izan nahi dugu Euskal Herrian. Erreferentzia izaten jarraitu nahi dugu informazioaren sinesgarritasunari dagokionez. Euskal ikuspegidun edukiak eskaintzen, herritarrekin harremanak zaintzen eta euskal komunikazio-eremua sortzen dihardugu. Gaur egungo aldaketaren helburua da pertsona konektatuak eta eduki-komunitateak EiTbren eginkizunaren erdigunean jartzea.

Eskerrik asko.

**BATZORDEBURUAK:** Eskerrik asko, Iturbe andrea. Eta orain taldeen txanda zabalduko dugu. Lehenik eta behin, Elkarrekin Podemosen izenean, Arana andreak hartuko du hitza.

**ARANA VARAS** andreak: Bai, eskerrik asko.

Señora Iturbe, le agradecemos sus explicaciones. No obstante, entenderá que el hecho de no habernos facilitado ninguna información previa hace bastante compleja la tarea de poder realizar ahora algunas consideraciones sobre las mismas. Pero no se preocupe...

(8. zintaren amaiera)

(9. zintaren hasiera)

... No obstante, entenderá que el hecho de no habernos facilitado ninguna información previa hace bastante compleja la tarea de poder realizar ahora algunas consideraciones sobre las mismas. Pero no se preocupe que las tenemos y muchas.

Usted ha mencionado datos del Sociómetro. Y hemos visto una intervención que, como todas a las que nos tiene acostumbradas su





Gobierno, carece de crítica. Y sin crítica no se cambia. Sin crítica no se puede construir y mejorar. Y en este caso un ente público, como es la Radio Televisión Pública Vasca, que en algunos canales tiene cero técnico, y que si no es por las personas profesionales que la levantan todos los días pues no sabríamos ahora mismo dónde están. Como decía, sin crítica no se cambia ni se mejora.

Vienen aquí y empiezan a mencionar miles de proyectos y acciones que luego no cumplen, que anuncian a bombo y platillo. ¿Y con qué recursos, señora Iturbe?

Mire, su piloto automático ya no tiene más recorrido, la gasolina se acaba. Y además, creo que tiene diésel y contamina.

Es una directora reprobada una y otra vez. Y eso debería hacerle pensar si este, si ese es su sitio.

Tampoco esperábamos que viniera usted hoy aquí a dar respuesta a lo que se le pregunta, puesto que es la actitud de su dirección hacia esta comisión de control. Viene usted, nos suelta un discurso que nada tiene que ver con lo que le estoy preguntando y se va otra vez.

Nos repite por enésima vez el contrato programa. Y ya le hemos dicho en otras ocasiones que evaluar con indicadores discutibles horas de emisión, objetivos, como el de la objetividad, independencia o fomento de la cultura vasca, no nos parece un sistema de evaluación adecuado. Y usted se refugia en traerlo aquí como una única respuesta a la evaluación que se le está pidiendo. Es decir, ¿qué evaluación hace en base a las líneas estratégicas de las actividades desarrolladas?

Y no me lea otra vez el contrato programa, es su respuesta, por favor, porque ya le he dicho que ya lo ha hecho en otras ocasiones y casi nos lo sabemos de memoria.

Mire, le voy a intentar plantear dos preguntas sencillas, a ver si así conseguimos que conteste en esta comisión y a mi grupo algo de lo que le estamos hoy preguntando sin salirse por la tangente.

¿Cuándo va a venir a esta comisión a presentar su Plan Estratégico? ¿Le parece adecuado seguir sin el mismo?





¿Cree usted, al margen de lo que nos ha dicho en su discurso, que los años 2017 y 18 la evaluación de las actividades de EITB merece un aprobado?

Por ejemplo, para que no se olvide, la mayoría de encuestadas dicen que los Teleberris son igual o peores que los del resto de cadenas. La mayoría de encuestadas prefiere un órgano de control externo e independiente. La mayoría de las encuestadas no conoce la web de EITB ni sus redes sociales. Le voy a ampliar la información.

En cuanto a la fiabilidad, usted hace una lectura que nosotros después de leer el Sociómetro pues es totalmente diferente a la que usted hace. Para empezar, es que no vemos ni una pizca de autocrítica, repito. Y esto nos deja perplejos y esto nos impide creer en usted y ver que va a llevar a buen puerto la Radio Televisión Pública Vasca.

Fiabilidad en los medios en Euskadi. Página 2, por si luego tiene a bien leerlo y tenerlo en cuenta, y en Europa páginas siguientes. Se realiza un balance sumando las categorías "muy fiable" más "bastante fiable", que se restan a un "no muy fiable" más "nada fiable". Euskadi por debajo de la media europea en todos, radio, televisión, periódicos, blogs y sitios web. Pero esta comparativa se ha utilizado... Para esta comparativa se utilizado el Eurobarómetro. Lo que nos llama la atención es cómo a continuación se ofrecen los resultados de la encuesta en características de los medios en Euskadi, páginas 8 y siguientes. Estoy hablando del Sociómetro.

**BATZORDEBURUAK:** Barkatu, Arana andrea, mesedez, gaurko gairu buruzko galderak eta (...).

**ARANA VARAS** andreak: Ha hecho referencia... La señora Iturbe ha hecho referencia al Sociómetro y yo también le voy a hacer referencia a datos del Sociómetro, porque es simplemente para contradecir exactamente lo que ella ha estado diciendo. Ella ha hablado del Sociómetro. Yo le contesto también con el Sociómetro.





**BATZORDEBURUAK:** Beste galdera batzuen inguruan baita ere, mesedez, gaurko gaiari eutsi. Bai?

**ARANA VARAS** andreak: Sí, sí. Pero al igual que ha hablado ella del Sociómetro, ¿puedo hablar del Sociómetro, no? Vale. Eskerrik asko.

Bueno, como le decía, en el balance el resultado de la suma "totalmente" más "en cierta medida" menos el "más bien", ta, ta, ta. Bueno, esas cosas que hacemos. Ya espesa la frase de aportaciones el cuestionario que ofrecerá la persona encuestada respuesta del tipo "en cierta medida" supone introducir una ambigüedad, algo que cualquier investigadora debe evitar a toda costa. Digo todo esto porque es importante. Porque ¿qué significa "en cierta medida"? ¿Es una respuesta que se ofrece habitualmente en los cuestionarios del Sociómetro o qué se pretendía hacer ahí? Porque si usted me dice si creo en usted y yo le digo que totalmente pues queda claro cuál es mi postura, pero si le digo que creo en usted en cierta medida pues usted comprenderá que la respuesta es bastante ambigua.

Habla usted también de que ETB era uno de los mejores canales en informativos, pero si lo cruzamos con la valoración de informativos de ETB en comparación con otros canales, el 48 % de las personas encuestadas decía que son iguales, es decir, igual de buenos o malos, no lo sabemos, y un 10 % que son peores que los de otras cadenas de televisión. ¿No le resulta este dato un poco incongruente?

Y qué reflexión, ya que ha hablado del Sociómetro usted y que ha hecho referencia con los datos que a usted le han convenido, yo le digo que qué reflexión le merece el hecho de que la emisora de radio con que se siente más identificada la mayoría de las personas encuestadas sea la SER, seguido de los 40 Principales, ocupando Radio Euskadi la tercera posición.

Podemos seguir hablando de muchas otras cosas. De hecho, usted ha hablado del tema de la igualdad. Pues en temas de igualdad tenemos un aprobado raspado. Un aprobado raspado de una Radio Televisión Pública Vasca que no se ha puesto las pilas y sigue con su piloto automático con todo en general y con la igualdad en particular, sobre todo en cuanto a la representación de las mujeres en los distintos espacios de EITB. Incluso después de la llamada de atención que supuso el 8 de marzo, porque el Sociómetro se hizo después del 8 de marzo, en el que millones de mujeres





tomamos las calles convocadas por el movimiento feminista, incluso siendo Euskadi un referente mundial en cuanto a las movilizaciones de las mujeres.

Así que, en este contexto histórico, nuestra EITB sigue con el piloto automático y prueba con raspadito suspendo. Por mucho que usted nos venga aquí, bueno, pues diciendo que la igualdad de las mujeres se está trabajando dentro de EITB, que los informativos deportivos también se está haciendo un esfuerzo por la visibilidad de las mujeres, de verdad que yo cada vez que veo los informativos deportivos en la televisión o bien los escucho en la radio de verdad que dista mucho de lo que usted está proponiendo aquí, porque hay momentos en los que contándolos con un cronómetro la información deportiva de las mujeres a veces no llega ni a los diez segundos. ¿Qué va a hacer usted para mejorar eso? Esos planes que nos ha traído aquí nos puede detallar un poco más qué va a hacer realmente y cómo se va a medir que realmente usted va a cumplir con esto que nos acaba de traer hoy aquí. Porque lo único que vemos es que usted ha traído propaganda, propaganda que no está relacionada...

(9. zintaren amaiera)

(10. zintaren hasiera)

... usted va a cumplir con esto que nos acaba de traer hoy aquí, porque lo único que vemos es que usted ha traído propaganda. Propaganda que no está relacionada y no está supeditada a unos recursos económicos y personales para saber que eso realmente se va a cumplir. Me puede explicar, ha hablado de proyectos para el sistema digital, para las web en el pleno siglo XI en el que todo el mundo nos movemos a través de las redes, un plan maravilloso que nos gustaría que nos detallara un poquito más y que también nos dijera de qué recursos va a disponer económicos y personales para llevarlos a cabo, y cuál es su objetivo para poder medir si realmente usted va a cumplir ese objetivo o no lo va a cumplir.

Besterik ez, eskerrik asko.

**BATZORDEBURUAK:** Eskerrik asko, ondoren talde Popularraren izenean Llanos andereak hartuko du hitza.





**LLANOS GÓMEZ** andreak: Gracias a la señora directora sobre todo por lo profuso de las explicaciones, que las ha ido diciendo con una rapidez... y además sin que no haya pasado previamente ningún documento que hubiera sido de agradecer entre otras cosas porque no se ha limitado a exponer el objeto de la comparecencia, sino que ha puesto de manifiesto una serie de proyectos que se van a llevar a cabo, que los ha dicho en muchos casos a toda velocidad, con lo cual incluso para la traducción era difícil hacerla, y, claro, yo no sé si esta velocidad es debida a... porque usted no tiene tiempo para hablar, podía haber tardado más tiempo, a ver si así no lo escuchan bien y luego no nos pueden pedir cuentas bien.

Yo le voy a decir exactamente lo mismo que le digo siempre que comparece ante esta comisión, y es que hace usted gala de una autocomplacencia que en lugar de ir a menos cada vez va a más.

Habla usted, y es verdad, lo decía la señora Arana, es que usted ha hablado de los datos del sociómetro, eso sí, usted hace su propia lectura del sociómetro, porque yo se lo he dicho en alguna otra ocasión, la lectura que ustedes hacen del sociómetro no la hacen ni los propios autores del sociómetro, porque con la lectura que ustedes hacen del sociómetro yo lo que me planteo es por qué en esta Cámara existe en este momento una ponencia para cambiar EITB o para cambiar el modelo de EITB. Si todo está fenomenal, si todo está bien, si somos lo más de lo más, falta decir que es que somos de Bilbao, porque quiero decir que ya es el colmo, ya digo, de todos los datos en los que usted ha hecho referencia en todos somos lo mejor, y si no tenemos un proyecto no se sabe si para hacerlo mejor.

Usted hace alusión continuamente al contrato programa, mire, yo creo que es que lo del contrato programa se lo he dicho en muchas ocasiones. Quizás con arreglo al contrato programa los objetivos que ustedes se proponen sean muy poco ambiciosos, pero es que además la otra parte del contrato programa, que es el Gobierno Vasco, que es el que debiera de ser exigente para ver si se cumplen esos objetivos del contrato programa, que, por cierto, además no sabemos con qué indicativos, porque en muchos casos únicamente el cumplimiento es por las horas de emisión, pero nada más, nada más, no hay otro indicativo más, pues, claro, si (?) la voz propia otra parte del contrato programa, el que pone los fondos económicos para el cumplimiento de esos objetivos le importa, pues, claro, ustedes para qué van a rendir cuentas si a la otra parte del contrato programa no se las pide.





